

Aurkezpena

Iragan den azaroaren 12an Donostiako Kursaal Elkargunean Eusko Ikaskuntzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkar lankidetzan antolatutako *Parte hartuz erabakitzen duzu* jardunaldia ospatu zen.

Bertan 80 gazte inguru bildu ginen, gizarte gipuzkoarrean gure parte hartzea nolakoa izan nahi zuen adierazteko xedez. Helburu orokorra bezala, egungo eta datozen erronkei aurre egiteko behar dugun gizarte-antolaketa berri baten proposamena bilatzeko lehen urrats bat ematea genuen eta politikarien eta gazteen artean hausnarketa esparru konpartituak zabaltzeko lehen hausnarketa prozesu bat abian jartzea.

Egun osoa eman genuen bertan eta esperientzia oso aberasgarria suertatu zen. 18 eta 30 urte arteko gazteez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat ordezkari izan ziren gurekin hizketan eta era berean Aztikerrek egindako "Gipuzkoako Gazteak eta Politika 2009" ikerketaren datuak ezagutu ahal izan genituen.

Eusko Ikaskuntzak jardunaldi honetan landu ziren ideia eta lan lerro nagusiak biltzen ditugu ondorengo dokumentuan.

Metodologia

Parte hartzaileen bilaketa lana eta gazteen profila

Pertsona hauek jardunaldi honetara erakartzeko Eusko Ikaskuntzak jarraitu duen metodologia eta lan prozesua ondorengoak dira:

- Eusko Ikaskuntzako bazkide diren **unibertsitateko irakasleengana jo**: Gai honekin harremana zuten ikasmaterialak ematen zituzten irakasleei ikasleak erakartzeko laguntza eskatu eta jardunaldietan inplikatzeko ahalegindu ginen.
- Gipuzkoa mailan diren **elkarteetara jo genuen** (euskara elkarteak, izaera parte hartzailea duten elkarteak, Gobernu Kanpoko Erakundeak...)
- **Tarjetoi eta kartelak banatu**: Tarjetoi eta kartelak 159 erakunde, pertsona eta instituzioetara bidali genituen eta horrez gain, gazteak elkartzen diren hainbat guneean banatu genituen (unibertsitatea, liburutegiak, Gazte Bulegoak, kirol guneeak...)
- Horrez gain, Eusko Ikaskuntzako **bazkide gazteen artean** informazioa hedatu zen.

Parte Hartuz erabakitzen duzu jardunaldian parte hartu zuten gazteek ezaugarri hauek zituzten:

- 18-30 urte artekoak.
- Parte hartzearen edota politikaren gaian interesa zuten gazteak ziren.
- Eusko Ikaskuntzarekin aurretik harremana zuten askok.

Esan beharra dago gazteak jardunaldi honetara erakartzeak esfortzu berezia eskatu zuela. Parte hartzaile guztiarekin jarraipen pertsonala eta etengabea egin genuen, posta elektronikoz informazioa eta oroigarriak bidaliz. Azkenik, jardunaldia burutu baino bi egun lehenago **pertsona orori telefonoz** deitu zitzaizen ekitaldia orotarazteko eta euren presentzia konfirmatzeko.

Jarraipen lana oso garrantzitsua izan zen ekimen honen arrakasta bermatzeko.

Edukiak

Aztikerreko ikerketan azaldu diren datu deigarrienak

Goizeko lehen orduan **Aztikerrek egindako ikerketaren aurkezpena** egin zen bertaratutako gazteek ikerketaren laburpena ezagutu zezaten.

Ikerketaren azalpenaren ostean, pertsona bakoitzak aurkezpen honetan azaldutako datuen artean zein izan zitzaien **datu deigarriena** aipatu zuen. Aurkeztutako datuen artean ondorengo ideiak izan ziren **gazteentzat azpimarragarrienak**:

- **Gipuzkoan gazteen artean bigarren indarra PSOE izateak** harritu egin gaitu, %50tik gora independentista denean. Hala ere, agian abertzaleek ez bezala PSOEren aldekoek ez dutela aldarrikatzen komentatu da.
- **Politikaz ez dela hitz egiten?** Gure inguruan kontrakoa gertatzen da. Asko hitz egiten da eta batzuk oso modu suttsuan. Hala ere, zenbait koadrilatan politika "tabu" a dela ere aipatu da.
- Gazteek politikari buruz interes gutxi dutela diote baina gero **%30ak ekimen desberdinetan parte hartzeko prest dagoela esaten du (Bai prest egongo litzateke %32 eta Bai ahalegin handirik eskatuko ez balu %31)**. Hau oso kopuru handia da eta ez da datu hauen positibotasuna azpimarratzen. Bestalde, datu hauek ikusita eta gazteek politikaren aurrean azaltzen duten interes ezarekin batera (%40 oso interes gutxi eta %31,3 batere ez) **gazteek politika instituzioekin eta alderdiekin lotzen dutela ondorioztatzen dugu. Horrek adieraz dezake, parte hartu nahi dugula, baina, ez dugula gustuko erarik topatu edo ezagutu**. Bestalde, ez dugu ikusten erabakitze ahalmenik dugunik, beraz, parte hartzeak zentzurik ba al du? Parte hartzeko prozesu eta plataforma berriak martxan jartzen hasi dira, baina, ez ditugu ezagutzen. Gazte Foroak arrakasta du gazteen artean, gazteek parte hartu nahi dute, baina, ez dakite nola eta bidea erraztu egin behar zaie, plataformak jarri behar dira. Gazteek modu egokian parte hartu nahi dute.
- Indibidualismoaren kontua egin zaigu deigarriena. Ikusi eta ikasi dugunagatik da. Hori da jaso duguna, ez gizartearen kohesioa.
- Gazteak **politikatik urrun** egotea, kontuan izanda beraiek izango direla biharko egunean politika aurrera eramane beharko dutenak. Egoera kezkarria da. Gaztedia ez da ordezkatuta sentitzen, baina, kezka badituzte (bozka ematerakoan gazteek duten parte-hartze txikia).
- Azterketak azaltzen duen apatia, mugimendu falta hori ez da kasualitatea. **Boterean daudenek kontzienteki bilatu dute egoera hori**. Gazteen mugimendua zapaldu egin dute, erreprimitu egin dituzte parte hartzeko prest zeuden gazteak.
- **Jardunaldiak zertarako planteatzen diren galdetu dute hasieratik batzuk**. Gehienek iritziz **Diputazioaren aurpegia garbitzeko** omen dira. Parte-hartzea normalean dagoena justifikatzeko erabiltzen da.
- Gipuzkoako Aldundiak onartzea **errepresioa eta terrorismo** hitzak tratatzea; biak gertu erabiltzea. Normalean maila ofizialean ez da onartzen biak elkarren ondoan naturaltasunez tratatzea.

Ondorioak

Parte hartze prozesu batek beharko lituzkeen ezaugarriak

Gazteek jardunaldiaren lehen zatian botatako ideia eta iritziz guztiekin, bigarren partean erreflexio eta hausnarketa epe bati ekin zitzaien. **Idea guztien bateratzea eta hausnarketa nagusiak jasota eta Eusko Ikaskuntzan burutu dugun erreflexio baten ondoren**, Gipuzkoako Foru Aldundiak **gazteekin parte hartze prozesu praktiko bat irekitzekotan oinarri hauekin egin dezakeela** uste dugu (gazteek ere, parte hartzeko mekanismoak martxan jartzea eskatu dutelako).

Prozesu honi ekin baino lehen ordea, Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartzaile guztiei jardunaldi hauen ondorioen igorketa egin beharko lieke, hau da, **jardunaldi honetan denbora dedikatu duen jendeari erantzuna eman beharko litzaioke**, egin duten esfortzua eskertuz eta aldi berean, euren aporazioek garrantzia dutela ohartaraziz.

Esan bezala, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak prozesu parte hartzaile bat irekitzea erabakiz gero, **ondorengo ezaugarriak eta baldintzak izan beharko lituzke:**

- Gazteen interesekoa izan daitekeen **gai konkretu bat aukeratu** (gai interesgarriak detektatu). Ez dadila zabalegia izan eta ahalik eta modu konkretuenean definitua egon behar du.
- **Lan eremu geografikoa:** Udal herri bat edota eskualde bat izatea gomendatzen da. Jendearen gertutasunak eta ezagutzeak prozesua erraztu dezake. Gazteek desberdin baloratzen dituzte herri mailako politikak eta gainerakoak. **Gazteen artean udal politikarien irudia hobea da eta gertuago sentitzen dituzte. Hobe baloratzen dituzte.**
- Prozesu parte hartzaile horretan **gai konkretu horren inguruan lanean arituko den taldea bezala bideratua egon beharko litzateke lan taldea**, eta inolaz ere **ez, partidu politiko batetako ideologia edota ideietara lotua**. Jardunaldian eta ikerketan azaldu zen bezala, **gazteek ez dute interesik "alderdi=politika" ekuazioan, baina bai arazo politikoetan** (etxebizitza, emakumeen egoera, lan-merkatua...)
- Gazteak erakartzeko **bide egokiak** erabili behar dira eta **pertsona bakoitzarekin modu indibidualean harremanak asko landu** behar dira. Alde batetik, parte hartzeak erakargarria izan behar du **estetika berriak landuz** eta horretarako komunikabide eta teknologia berrien erabilpena oso aproposa izan daiteke. Era berean, eta paraleloki ordea, banan banako harremana landu behar da izan ere, **giza harremanen bidez lortzen baita atxikimendua. Gazteekin lan egiteak "gainean egotea" eskatzen du eta horretarako banan banako harremana asko zaintzea garrantzitsua da.**
- Adierazi den bezala, **gazteen konpromisoa lortzea ez da erraza** izaten (gaur egungo gizartean ezta helduena ere), horregatik, **prozesuak hasieratik gardena izan** beharko luke (helburuak, egutegia, gazteengandik espero dena, bilera datak...) eta **ez litzateke inprobisatu behar:** Erakunde publiko eta gazteen artean harremana onuratsua izan dadin, **instrumentu egokiak, bitartekariak eta kanal egokiak** ahalbidetu behar dira. Parte hartzaileei prozesuaren iraupena eta eskatzen duen konpromiso maila alde zuzenetik argi azaldu behar zaie, jakinarazi gainean ardura har dezaten edo ez.
- Parte hartzeak eraginkorra izan behar du (**ez soilik maila kontsultiboan**) eta euren **aportazioek izango duten eragina** hasieratik ezagutu behar dute. Horrek hurrengoan ere parte hartzera bultzatzen ditzake. **Prozesu parte hartzailearekin erakundeek hartzen 14 duten konpromiso mailak** argia izan behar du, hau da, erakundeak prozesu parte hartzaile horretatik jasotzen dituen ondorioekin zer egingo duen eta zergatik azaldu behar die.
- **Prozesuaren sinesgarritasun maila parte hartzaileen ondorioek eta prozesuak berak izan duen erabilpen hautemangarriaren eraginpean dago.** Horretarako prozesuak bi itzultze momentu izan beharko lituzke: Lehenengo itzultze epea: Parte hartzaileei **aditu ditugula eta jasotako informazioarekin lan egin dela jakinarazi behar zaie.** Ondorio dokumentu bat egin behar da. Bigarren itzultze momentua: Parte hartzaileek ez dute aditu zaiela bakarrik entzun nahi ordea, **azken erabakia hartzean euren iritzi eta ikuspuntuak duten eragina jakin nahi izaten dute.** Horregatik, inpaktuen dokumentu bat egitea gomendatzen da.
- Gai eta erabiltzen den prozeduraren arabera, eta beharrezkoa bada, **hezkuntza eta formazioa ahalbidetu beharko litzateke** prozesu honetan parte hartzen duten pertsonen, hau da, gazte parte hartzaileei, baita politikariei ere.
- Prozesu honi buruz **komunikabideak ematen duten informazioa eta irudia** asko zaindu beharko litzateke, izan ere, gaur egun gizartean gazteen inguruan den irudia nahiko negatiboa da eta aldatzea komenigarria litzateke eta gazteriaren irudi positiboa bultzatu beharko litzateke.

Prozesu honen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak jardunaldian zehar **baloratu eta bota ziren ideia nagusi eta baldintza ugari bermatuko lituzke (koherentziaren mantentzea)**. Hau da, jardunaldiaren plenarian hausnarketa eta eztabaida irekian gazteek izaera parte hartzailearen duen gizarte baterantz bidea jorratzeko eman beharko liratekeen baldintza eta ezaugarri batzuk aipatu zituzten. Prozesu honen bidez hauetako ugari bermatu eta bultzatzen direla uste du Eusko Ikaskuntzak. Besteak beste:

- **Jardunaldiak zertarako planteatzen diren galdetu zutenei, erantzun bat ematen zaie**, hau da, parte-hartze prozesu bat abian jartzeko beharrezko aurrekari moduan.
- Politikariek alderdietatik haratago dagoen politika egiteko gai direla erakutsiko lukete. Era berean, politikariek **parte-hartzean benetako interesa** dutela erakutsiko lukete. Politikarien irudia hobetzeko urrats bat izan daiteke eta oro har, **politikak sortzen duen asperduraren aurrean beste jarrera eta ideiak bultzatu daitezke**.
- Parte hartzea bultzatzen duten balioak zabaldu (elkartasuna, hiritargoaren zentzua...).
- **Politikarien benetako gerturatzea** bultzatuko lukete, gazteek behin eta berriz errepikatu duten ideia.
- Heziketa/ eredu politikoa hobetzeko urrats txiki batzuk ematen hasi. Hala, gazteen eta oro har, **herritarren espiritu kritikoa eta eraikitzailea bultzatuko** litzateke.
- Haur eta gazteei bai familian, baita eskoletan ere, **gizarte-kolektibo batean bizi direla erakutsi** beharko genieke. Heziketa bidez, mentalitate aldaketa bultzatu, gizarte gaietan parte hartzera bultzatuz.